

Herriko saltoki txikiei babesa emateko hainbat neurri hartuko ditu Udalak

Egunetik egunera, gero eta gehiago dira itxi beharrean aurkitzen diren saltoki txikiak, eta Markina-Xemein eta gure inguru hurbila ez dira salbuespena. Merkataritza txikiak bizi duen egoera kezagarriaren aurrean, eta saltoki txikiek herriari egiten dioten ekarpena balioan jarri nahian, merkataritza txikia babesteko hainbat urrats eman nahi ditu Markina-Xemeingo Udalak.

Batetik, Udalaren diru-laguntzak jasotzen dituzten herriko talde eta elkarteei euren ekintzak antolatzeko beharrezko materialak ahal den neurrian herriko saltoki txikietan erostea eskatuko zaie aurrera begira. Urrats txiki bat baino ez da honakoa baina, Udalaren iritziz, asko egin dezake herriko saltoki txikiak babesteko ahaleginean.

Bestetik, Hemen Be Bai merkatarik elkartearen dinamizazio lana diruz ordainduko du Udalak aurrerantzean. Elkarteko bi pertsona arduratuko dira zeregin horretaz.

Azkenik, orain dela urtebete martxan dagoen www.mxturismoa.eus webgune turistikoa herriko merkatarik txikien erakusleho erakargarria izatea lortu nahi da. Horretarako, Turismo Mahaiarekin elkarlanean, webgunea etengabe osatzen eta hobetzen joateko konpromisoarekin bat egiten du Udalak, eta hobekuntza horien artean herriko saltoki txikiei ere egingo zaie keinurik. Hala, webgunean bertako produktuei eskaintzen zaien tokiaz gain, herriko souvenirren eskaintzak ere aparteko txokoa izango du aurrerantzean.

Udalaren eta merkatarik elkartearen arteko elkarlana aspaldikoa eta oparoa da. Saltoki txikiak babesteko neurri hauekin, norabide horretan hartutako konpromisoa berretsi nahi du Udalak.